


## EKONOMIA ERAGILEEN KONFIANTZA

### Aurkia eta ifrentzua ekonomia eragileen igurikimenetan

#### Familien konfiantza indizea




Laboral kutxak EAEko familien konfiantzaz osatzen duen indizeak hobekuntza txikia adierazten du 2019ko bigarren hiruhilekoan eta 3ko balioa jaso du. Zenbaki hori aurreko epealdikoa baino puntu bat altuagoa da eta nolabaiteko finkatzea eta egonkortzea signalatzen du.

EAEko familiek hazkunde dinamikoa aurreikusten dute ekonomia orokorrean eta, nagusiki, igurikimen onak dituzte langabeziaren beheranzko bilakaeraz. Beste aldetik, kontsumitzaileek gero eta konfiantza handiagoa erakusten dute familiaren ekonomiaren etorkizunaz, baina zailtasunak daude emaitza horiek balio positibotan kokatzeko. Aurrezteko perspektibek susperraldiko ibilbidea baieztatzen dute, non 2019ko urtea inflexio gunea dela ematen baitu indize orokorraren osagai horren norabidean.


| FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA        |          |          |          |          |             |          |          |          |
|------------------------------------|----------|----------|----------|----------|-------------|----------|----------|----------|
|                                    | 2017     | 2018     | 2018     |          |             |          | 2019     |          |
|                                    |          |          | I        | II       | III         | IV       | I        | II       |
| <b>Kontsumitzaileen konfiantza</b> | <b>1</b> | <b>1</b> | <b>1</b> | <b>2</b> | <b>-0,5</b> | <b>3</b> | <b>2</b> | <b>3</b> |
| Ekonomia orokorra                  | 6        | 3        | 5        | 3        | 1           | 3        | 2        | 3        |
| Familien ekonomia                  | -5       | -4       | -6       | -3       | -4          | -2       | 1        | 0        |
| Langabeziaren bilakaera            | 12       | 10       | 12       | 15       | 5           | 7        | 4        | 8        |
| Aurrezteko ahalmena                | -10      | -5       | -10      | -7       | -5          | 3        | -1       | 4        |
| Prezioen bilakaera                 | -17      | -23      | -24      | -18      | -23         | -25      | -17      | -17      |
| Erosteko momentua                  | -3       | -9       | -5       | -11      | -15         | -7       | -2       | -3       |
| Erosketen gauzatzea                | -7       | -6       | -3       | -6       | -5          | -8       | 3        | -1       |

## Enpresarien konfiantza indizea



Beste aldetik, Laboral kutxak ere argitaratzen duen enpresarien konfiantza indizeak 51,0ko balioa jaso du 2019ko hirugarren hiruilekorako. Datu horrek narriadura esanguratsua ekarri du aurreko hiruhilekoan islatu zen baikortasunaren aldean. Oraindik 50eko langatik gora dagoenez, indizeak hedatze eremuaren barnean jarraitzen du. Hala ere, EAEko enpresek igurikimen ez hain baikorrak erakusten dituzte 2019ko uztaitetik iraile-ra bitartean ekonomiak izango duen bilakaeraz. Enpresen ikuspegi ez hain baikor hori orokorra da indizearen osagai guztietan.

## Enpresarien igurikimenak aldagaien arabera



Iturria: Laboral kutxa.